IKASLEAK: ERABILERA ETA JARRERAK

Ikasleen hizkuntza-erabilera

- Nolakoa da gure ikasleen hizkuntza-erabilera? Zein neurritan erabiltzen dituzte hizkuntzak? Zein egoera edo testuingurutan (solaskideak, gizarte-eremuak...)?
- Erabilera hori egokia iruditzen zaigu ala badira hobetzeko alderdiak edo gaiak?
- Ikasleen hizkuntza-erabilerari buruzko irizpideak ezarriak al ditugu? Nork hartu du parte definizioan? Argiak eta zehatzak al dira? Betetzen al dira? Berrikusi beharko genituzke?
- Ikasleen arteko interakzio-egoerak sustatzeko, zuzentzeko eta dinamizatzeko eginkizunetan irakasleon (eta langile ez irakasleen) rola eta betekizunak definitzeko irizpideak adostuta al ditugu? Eta eginkizun horiek betetzeko baliatu ditzakegun estrategiak? Argiak eta zehatzak al dira? Betetzen al dira? Berrikusi beharko genituzke?

IRAKASLEAK ETA GAINERAKO PROFESIONALAK. EZAGUTZA, ERABILERA, PRESTAKUNTZA...

Hizkuntza-gaitasuna

- Nolako hizkuntza-gaitasuna dugu ikastetxeko irakasleok? Nahikoa eta egokia iruditzen al zaigu, ala hobetzeko alderdiak edo gaiak badirela deritzogu?
- Eta langile ez irakasleena?

Prestakuntza beharrak hizkuntza-kontuetan

- Irakasleok hizkuntza-kontuetan prestakuntza-plan bat behar al dugu? Hala balitz, sartuko dugu plan hori ikastetxeko prestakuntza-planean?
  - *Zenbat denbora eskainiko diogu? Zein ikasturtetan? Nork hartuko du parte?*
  - *Nola txertatuko dugu hizkuntza-prestakuntza plana ikastetxeko hobekuntza-planean eta prestakuntza-planean?*
- Zein gai eta alderdi landu behar ditugu?
  - *Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna eta gure ekoizpenen kalitatea hobetzeko prestakuntza? Zein hizkuntzatan?*
  - *Gure zenbait ikasleren familia-hizkuntzetara hurbiltzeko oinarrizko prestakuntza?*
  - *Arlo linguistikoetan zein ez linguistikoetan, hizkuntzak lantzeko modua hobetzeko prestakuntza didaktiko-metodologikoa?*
  - *Interakzio- eta komunikazio-egoerak hobeto kudeatzeko eta dinamizatzeko prestakuntza?*
  - Ikasleengan lortu duten gaitasunaren kontzientzia hartzeko eta ikasprozesuaren autorregulazioa sustatzeko lanak hobetzeko prestakuntza?
  - *Hizkuntza-jarrerak hobeto lantzeko prestakuntza?*
- *Langile ez irakasleek hizkuntza-kontuetan sentsibilizazioa eta prestakuntza behar dituztela iruditzen al zaigu? Zer, nola, noiz?*
- *Familiek hizkuntza-kontuetan sentsibilizazioa eta prestakuntza behar dituztela iruditzen al zaigu? Zer, nola, noiz?*

Profesionalon hizkuntza-erabilera

- Nolakoa da irakasleon hizkuntza-erabilera? Zein neurritan erabiltzen ditugu hizkuntzak ikasleekiko harremanetan (ikasgelan eta gelaz kanpo)? Eta lankideekiko harremanetan (formal eta informaletan)? Eta familiekiko harremanetan?
- Hizkuntzen erabilerari buruzko irizpideak ezarriak al ditugu? Nork hartu du parte definizioan? Argiak eta zehatzak al dira? Betetzen al dira? Berrikusi beharko genituzke?
- Eta langile ez irakasleei dagokienez (begiraleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak)?

HIZKUNTZEN ERABILERA HARREMANETAN ETA EREMU INSTITUZIONALEAN

Hizkuntzen erabilera parte-hartzeko eta erabakitzeko barne-foroetan: Ordezkaritza Organo Gorena, zuzendaritza-taldea, batzorde pedagogikoa, ziklo- edo departamentu-bilerak, batzordeak...

- Nolakoa da hizkuntzen erabilera foro hauetan? Erabilera hori egokia iruditzen zaigu ala badira hobetzeko alderdiak edo gaiak?
- Hizkuntzen erabilerari buruzko irizpideak ezarriak al ditugu? Eta kidego horien osaerarako hizkuntza-irizpideak ezarriak al ditugu? Beharrezkoak iruditzen al zaizkigu?
- Gure jarduna bat dator irizpide horiekin?
- Irizpide horiek gaur egun baliagarriak iruditzen zaizkigu ala berrikusi beharko genituzke?

Hizkuntzen erabilera familiekiko harremanetan

- Nolakoa da hizkuntzen erabilera familiekiko harremanetan? Erabilera hori egokia iruditzen zaigu ala badira hobetzeko alderdiak edo gaiak?
- Hizkuntzen erabilerari buruzko irizpideak ezarriak al ditugu? Beharrezkoak iruditzen al zaizkigu?
- Gure jarduna bat dator irizpide horiekin?
- Irizpide horiek gaur egun baliagarriak iruditzen zaizkigu ala berrikusi beharko genituzke?

Hizkuntzen erabilera kanpo-harremanetan: Hezkuntza Administrazioa, Laguntza Zerbitzuak, beste ikastetxeak, bestelako erakunde publikoak (Osakidetza, udal-zerbitzuak...), enpresak eta hornitzaileak, bestelako elkarteak eta eragileak

- Nolakoa da hizkuntzen erabilera kanpo-harremanetan? Erabilera hori egokia iruditzen zaigu ala badira hobetzeko alderdiak edo gaiak?
- Hizkuntzen erabilerari buruzko irizpideak ezarriak al ditugu? Beharrezkoak iruditzen al zaizkigu?
- Gure jarduna bat dator irizpide horiekin?
- Irizpide horiek gaur egun baliagarriak iruditzen zaizkigu ala berrikusi beharko genituzke?

Hizkuntzen erabilera eta presentzia ikastetxeko dokumentuetan

- Nolakoa da hizkuntzen erabilera eta presentzia ikastetxeko dokumentuetan? Erabilera hori egokia iruditzen zaigu ala badira hobetzeko alderdiak edo gaiak?
- Hizkuntzen erabilerari eta presentziari buruzko irizpideak ezarriak al ditugu? Beharrezkoak iruditzen al zaizkigu?
- Gure jarduna bat dator irizpide horiekin?
- Irizpide horiek gaur egun baliagarriak iruditzen zaizkigu ala berrikusi beharko genituzke?

Hizkuntzen presentzia ikastetxeko hizkuntza-paisaian

- Nolakoa da gaur egun hizkuntzen erabilera eta presentzia ikastetxeko hizkuntza-paisaian? Egokia iruditzen zaigu ala hobetzeko alderdiak edo gaiak badirela?
- Hizkuntzen erabilerari eta presentziari buruzko irizpideak ezarriak al ditugu? Beharrezkoak iruditzen al zaizkigu?
- Gure jarduna bat dator irizpide horiekin?
- Irizpide horiek gaur egun baliagarriak iruditzen zaizkigu ala berrikusi beharko genituzke?

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-IBILBIDEA

- Zer-nolako ibilbidea egin du ikastetxeak, hizkuntzei dagokienez, azken hamarkadotan? Zer-nolako aldaketak eta mugarriak izan ditugu? Nola bizi ziren aldaketa horiek? (zergatik eta zertarako eman ziren, nork sustatu zituen, nolako laguntzak eta oztopoak egon ziren, nolako bizipenak...? Zein izan da aldaketa horien eragina edota ondorioa? (abantailak, galerak...) Aldaketa prozesu horietatik zein ikasbide eta ondorio atera ditzakegu? Une honetan aldaketak egiteko beharra edo nahia ba al dugu? Nolako bultzadak eta oztopoak ditugu gure artean?
- Zer-nolako irizpideek eta erabakiek (inplizitu edo esplizituak) gidatzen dute hizkuntzen trataera ikastetxean? Horietakoren bat berrikusi, eguneratu edo aldatu behako genuke? Badira adostu edo erabaki gabeko kontuak?